# *2015EKO IRAILAREN 15EAN OSPATURIKO UDAL OSOKO EZ OHIKO ETA PREMIAZKO BILKURAKO AKTA*

# *ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA Y URGENTE CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE OTXANDIO, EL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2015.-*

**Bertaratuak / Asistentes:**

**Alkatea:**

*Urtzi Armendariz Alzaga jauna.*

**Zinegotziak:**

*Miren Urigoitia Areitio andrea.*
*Juan Ignacio Ochandiano Ajuriaguerra jauna.*
*Irati Axpe Larrañaga andrea.*
*Kepa Gonzalez de Audicana Bengoetxea jauna.*
*Ana Nogueira Murua andrea.*
*Beñat Gorospe Iparragirre jauna.*
*Endika Garate Goikolea jauna.*
*Begoña Lasuen Ruiz de Azua andrea.*

**Bitarteko Idazkaria:**

*D. Enrike Alaña Kapanaga jauna*

Otxandioko Udaletxean, 2015eko irailaren 15ean, arratsaldeko zazpi terdiak direnean, goian aipaturiko Udal kideak bildu dira, aurrez eginiko osoko bilkurarako deialdiari erantzunez.

En el Ayuntamiento de Otxandio, siendo las siete y media de la tarde del día 15 de septiembre, se reúnen los concejales arriba señalado atendiendo a la convocatoria previamente realizada.

**1.-GAI ORDENEAN AGERI DIREN GAIEN IZAERA PREMIAZKOA**

**1.- RATIFICACIÓN DEL CARÁCTER EXTRAORDINARIO**

**ETA EZ OHIKOA BERRESTEA ONARTZEA BIDEZKO BALITZ.**

Alkate jaunak adierazten du gertakariak direla eta hauen larritasuna ikusirik komenigarria dela premiaz erabakia hartzea, hau dela eta bertaratutakoek aho batez bilkuraren eta gai ordenean ageri den gaiaren premiazkotasuna berresten dute.

**2.- MOTIBAZIO POLITIKOENGATIKO BIKTIMEN INGURUAN ADIERAPENA ONARTZEA, BIDEZKO BALITZ.-**

Bertaratutakoek aho batez onartzen dute ondoren aipatzen den **ADIERAZPENA:**

*Gaur, 2015eko irailaren 15ean Guardia Zibilak Otxandioko 4 herritar atxilotu eta madrilera eraman ditu, aurtengo uztailaren 25ean Luzia Urigoitia "Lutxi" Otxandiotarrari egindako omenaldi herritarra zuzendu izana egotzita.*

*Honen aurrean, Otxandioko herritarren udal ordezkari garenok honakoa adierazi nahi dugu:*

*Lehenik eta behin, Amaiur, Aitor, Asier eta Mireni, eta beraien senide eta gertukoei, une latz hauetan gure elkartasun beroena helarazi. Otxandioko herriaren nahia da gure herritar dan danak ahal den lasterren*

**Y URGENTE DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DEL PLENO.**

El Sr. Alcalde expone que vistos los acontecimientos y la gravedad de los mismos es conveniente tomar un acuerdo urgente, y los presentes, por unanimidad acuerdan ratificar el carácter urgente del asunto incluido en el orden del día.

**2.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE DECLARACIÓN EN TORNO A LAS VICTIMAS DE MOTIVACIÓN POLÍTICA.-**

Los presentes por unanimidad acuerdan aprobar la siguiente **DECLARACIÓN:**

*Hoy día 15 de septiembre de 2015 la Guardia Civil ha detenido y llevado a Madrid a 4 vecinos de Otxandio, bajo la acusación de haber dirigido el homenaje popular que se rindió el 25 de julio de este año a Luzia Urigoitia "Lutxi".*

*Ante estos hechos, quienes somos representantes de los vecinos de Otxandio queremos declarar los siguiente:*

*En primer lugar, hacer llegar a Amaiur, Aitor, Asier y Miren, así como a sus allegados nuestro más cálida solidaridad. Es voluntad del pueblo de Otxandio, que todos y cada uno de nuestros vecinos estén en casa lo antes*

*berriz etxean, libre eta beraien eskubide guztien jabe egotea.*

*Bigarrenik, indarkeria politikoaren biktima izandako edozein herritarrek publikoki omendua eta aitortua izateko duen eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Euskal Herriko beste hainbat herrietan moduan, Otxandion ere zoritxarrez indarkeria politiko horrek gure bi herritarren heriotza eragin zuen, eta beraien memoria bizirik mantentzeak etorkizuneko elkarbizitza aske eta baketsu baterako beharrezko oinarriak jartzen dituela uste dugu.*

*Luzia Urigoitiaren kasua Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzarako idazkaritza nagusiak landutako "Biktimen Udal Erretratuak" txostenean ofizialki biktima moduan aitortua izan da. Txosten honetan, udal guztioi dei egiten zaigu gure udalerrietan izandako biktima guztiei aitortza egin eta berauen oroimenerako ekintza publiko eta instituzionalak bultzatzeko. Irailaren 4ean izandako batzarrean, EAEko Lehendakariak eskakizun berdina egin zigun. Baina gaurkoaren ondoren, Otxandioko udal ordezkariak beldur gara gure herriak jasandako biktimen omenaldiak egiteak ekar ditzazkeen ondorio penalen inguruan. Horregatik, Lehendakariari eta Bakea eta Bizikidetzarako idazkaritza nagusiari dei egiten diegu Udal honetako ordezkariak publikoki babes ditzan biktimen aitortza eta omenaldia egiteko orduan.*

*posible, libres y en posesión de todos sus derechos.*

*En segundo lugar, queremos reclamar el derecho que a todas las víctimas de la violencia política les asiste a ser públicamente reconocidos y homenajeados. Como en tantos otros pueblos de Euskal Herria, en Otxandio también por desgracia, esa violencia política produjo dos víctimas, y creemos que el mantener viva su memoria establece los pilares necesarios para una futura convivencia libre y pacífica.*

*El caso de Luzia Urigoitia ha sido reconocido oficialmente como víctima en el informe "Retratos Municipales de las Víctimas" elaborado por la Secretaria General para la Paz y la Convivencia del Gobierno Vasco. En este informe se anima a todos los municipios a realizar reconocimientos y actos públicos e institucionales de homenaje a todas estas víctimas. En la reunión celebrada el día 4 de septiembre, el Lehendakari de la CAPV nos hizo el mismo llamamiento. Pero tras los acontecimientos hoy acaecidos, los representantes municipales de Otxandio tenemos miedo por las consecuencias penales que pueda acarrear homenajear a las víctimas sufridas por nuestro pueblo. Por ello solicitamos al Lehendakari y al Secretario General para la Paz y la Convivencia que ofrezcan amparo públicamente a los representantes de este municipio a la hora de realizar actos de reconocimiento y homenaje a las víctimas.*

*Bide batez, herri honetako instituzioei dei egiten diegu gaur egun artxibatuta dagoen Luzia Urigoitiaren hilketaren kasua behar bezala iker dadin eta bere heriotzaren inguruko argiketa eta erantzuleen identifikazioa ahalik eta azkarren egin dadin.*

*Azkenik, Otxandioko udal ordezkariok elkarbizitza baketsu eta aske baten alde lanean jarraitzeko dugun konpromisoa berresten dugu. Horregatik, zentzu honetan Udalak eta herritarrek (Andikona Foroak besteak beste) etorkizunean antolatu ditzaketen ekitaldietan parte hartzen jarraitzeko deia luzatzen diegu Otxandioko herritarrei, eta indarkeria politikoaren biktimen inguruko omenaldietan parte hartu edota beraien elkartasuna adierazteko dei egin Euskal Herriko herritar eta ordezkari politikoei.*

Eta beste aztergairik ez dagoenez, Bilkura bukatutzat ematen da goian aipatutako egunaren 20´15 ordutan, guztiaren akta jaso eta honen sendespena egiten dut Udalaren bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkatearen oniritziarekin.

*Así mismo, hacemos un llamamiento a las instituciones de este pueblo para que el caso de la muerte de Luzia Urigoitia, hoy en día archivado, sea adecuadamente investigado, esclarecidas las circunstancias de su muerte y la identificación de sus responsables la más pronto posible.*

*Por último, los representantes municipales de Otxandio nos ratificamos en nuestro compromiso de seguir trabajando por una convivencia en paz y libertad. Por ello, en ese sentido hacemos un llamamiento a los vecinos de Otxandio que sigan tomando parte en las actividades que se puedan organizar próximamente por el Ayuntamiento y los vecinos (en particular el Foro de Andikona), y así mismo hacemos extensivo un llamamiento a las gentes de Euskal Herria y a los representantes políticos a que tomen parte en los homenajes a las víctimas de violencia política y a mostrar su solidaridad.*

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la Sesión a las 20´15 horas del día al comienzo señalado, de lo cual doy fe como Secretario interino de la Corporación, con el Visto Bueno del Sr. Alcalde-Presidente.

**ALKATEAREN O.I.**
**Urtzi Armendariz Alzaga**

**IDAZKARIA**
**Enrike Alaña Kapanaga**